



TREBAKUNTZA 2011/05: PUNTUAZIOA III (PUNTU ETA KOMA)

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * Udaletxeko langilerik formatuena da, ikastaro guztietan ematen du izena.
2. * Alkateak esan du berandu iritsiko dela, arkitektoa, aldiz, ordurako etorriko da.
3. * Hauteskundeetan ez zutela emaitza onik lortu aitortu zuen. Hau da, galdu egin zutela.
4. * Bertan izan ziren Leire Amilbar Kultura sailburua, Jon Ander Irazu kultur zinegotzia, Ainhoa Elizgarai Gipuzkoako Aldundiko teknikaria, eta Juan Urtubi udal idazkaria.
5. * Esan zuten erabakia atzeratzea izango zela gomendagarriena, egokiena, azken batean.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

PUNTU ETA KOMA (;)

Puntuazio-marketan, beharbada, puntu eta koma dugu “zokoratuena”. Hala ere, puntuazio eraginkorrak ezinbestekoa du, beste maila bat (puntuaren eta komaren artekoa) eskaintzen baitigu perpausen joskera antolatzeke.

- **Ezaugarri orokorrak**

- Puntuak baino eten txikiagoa adierazten du puntu eta komak, baina komak baino handiagoa. Puntu eta komaz markaturiko esaldien

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



artean lotura semantiko handiagoa dago, puntuz bereizirikoen artean baino. Beraz, egoki erabiliz gero, aberastu egiten du testuaren egitura eta informazioa, ñabardurak adierazten baititu.

- Puntu eta komaren ondotik, zuriunea uzten da beti.

- **Noiz erabiltzen den**

- Esaldien artean esanahi lotura estua dagoela adierazten du puntu eta komak. Horrelakoetan, puntu eta koma erabiltzen da esaldiak bereizteko, eta ez puntua:

Gasteizko gizonik aberatsena zen; lurrak, etxeak eta errotak zituen.

Lotura logikoa esplizitatu nahi izanez gero —kausa, ondorioa, aurkaritza...—, lokailuak eta bestelako diskurtso antolatzaileak erabili beharko ditugu:

Aimarrek Peñagarikano izango du lagun; Asierrek, berriz, Ruben Beloki.

Batez ere, eleberriak eta ipuinak irakurtzen ditut; zuk, aldiz, sekula ez duzu nobelarik irakurri.

- Enumerazioetan, normalean komaz bereizten diren elementuak puntu eta komaz bereizten dira, **baldin eta barrenean komak badituzte**:

Bertan izan ziren Elizabeth Schuhmacher, Errauste Planten Aldeko Elkarteko burua; Andrea Floret, Ingurumen Saileko biologoa; Jesus Etxebarri, Gipuzkoako Aldundiko teknikaria; eta Asier Garmendia, Natura Babesteko Planaren egilea.

- Laburpen moduko batzuetan ere puntu eta koma baliatzen da. Argibide gisakoak izan ohi dira, esaldi bukaeran idatziak.

Bizipen horiek sentimendu bat sortzen dute, eta sentimendu hori hitz bilakatzen da; kantu, azken finean.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



Beraz:

1. Udaletxeko langilerik formatuena da; ikastaro guztietan ematen du izena.
2. Alkateak esan du berandu iritsiko dela; arkitektoa, aldiz, ordurako etorriko da.
3. Hauteskundeetan ez zutela emaitza onik lortu aitortu zuen; hau da, galdu egin zutela.
4. Bertan izan ziren Leire Amilibar, Kultura sailburua; Jon Ander Irazu, kultur zinegotzia; Ainhoa Elizgarai, Gipuzkoako Aldundiko teknikaria; eta Juan Urtubi, udal idazkaria.
5. Esan zuten erabakia atzeratzea izango zela gomendagarriena; egokiena, azken batean.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: **943260372 (Imanol)** eta **946279195 (Iratxe)**
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org